

## liburua



**Izenburua:** Txirrina kantari'. **Egilea:** Antton Kazabon. **Marrazkiak:** Ainhoa Redondo. **Edukia:** Eguneroko hamasei egoera, kopletan jarrita. **Norentzat:** Haur Hezkuntzako haurrentzat eta haien familiarentzat. **Argitaletxea:** Ikastolen Elkarte.

## Iratxe Ramirez

Haur Hezkuntzako ikasmaterialgintzako arduraduna

## «Haurren sentimenduekin loturiko koplak dira»


Haurren artean bada diran egunero errepikatzen diren emozioak: lagun berriak ezagutzeko unea, min hartzen duten momentua, gaixorik dauden eguna... Eguneroko hamasei emoziorikopla jarri dizkie Antton Kazabonek, eta marrazkia egin die Ainhoa Redondok. Bien lanak batu, eta Txirrina kantari liburua argitaratu du Ikastolen Elkarteak.

### Kopla bilduma da 'Txirrina kantari'. Zer biltzen da?

Haur Hezkuntzako haurrek dituzten eguneroko hamasei egoera hartu, eta kopla bat idatzi die Antton Kazabonek. Doinu tradizionalarekin abesteko koplak dira guztiak. Orrialde bakoitzean aipatzen da zein den koplaren doinua.

### Zein da helburua?

Ohiko egoera horiek kopla bidez adieraztea zen asmoa. Egoera arrunt horiek modu ludiko batean adierazi nahi genituen. Hauek dira liburuan agertzen diren egoera batzuk: ipuina kontatu aurretik arreta eta isiltasuna lortzekoa, lagun berriak ezagutzeko eta haserre bizietatik ateratzen laguntzekoa. Haurren



emozioekin eta sentimenduekin loturiko koplak dira.

### Zein irizpide erabili dituzue egoerak aukeratzeko?

Haur literaturan, hezkuntzan eta bertsolaritzan bide luzea egindakoa da Kazabon, eta ondtxo ezagutzen ditu haur hezkuntzako ikasleen ohiko egoe-

rak. Hezitzaileekin ere hitz egin zuen egileak, eta hala xe aukeratu zituen ohikoek ziren egoerak. Adin horretako gela bat aztertuta, liburuko egoerak dira egunero errepikatzen direnak.

### Dena den, egoera batzuk kanpoan geratuko ziren.

Milaka egoera sor daitezke. Aukerarik izanez gero, bilduma osatuko genuke. Dena den, goiz da oraindik beste bilduma bati buruz hitz egiteko. Oraingoz, oso material erakargarria dela eta probatu dugun leketan arrakasta izan dela ikusi da.

### Etxean, eskolan erabil daiteke?

Eskolan lantzeko aukera ematen du, baina etxean erabiltzeko ere oso material egokia iruditzen zaigu. Adin horretan haurrek ez dakite irakurtzen. Beraz, helduek abestu beharko dizkiete koplak.

### Marrazkiak ere ikusgarriak dira.

Material erakargarria geratu bada, Ainhoa Redondoren lanaren ondorioz ere izan da. Oso marrazki biziak eta dinamikoak egin ditu; primeran adierazten dute egoera. Ilustrazioei begira ere kontaktzen da istoriotxo.



## liburua

### 'Xomorroak ate azpitik'

Krokodiloa, otarraina, xomorroak, aramua, zozoa eta miru jauna dira liburu honetako protagonista nagusiak. Istorio laburrak dira guztiak. Alegiak etortzen zaizkigu gogora ipuin labur horiekin, animalia hauen ibilerak halakoxeak baitira. Garai bateko alegien asmo moralik gabe idatziak daude, ordea, istorio hauek. Hizkera aberatsaz, jostariak eta dibertigarriak kontatzen dira animalien abentura horiek. Juan Kruz Igerabide idazleak euskaratu ditu istorioak.

Jorge Gonzalez

Aitor Espie

Argitaletxea: Elkar.



## komiki liburua

### 'Ahalmen partekatuak'

Erresuma galdu baten bila abiatu dira Soltaren gaztea eta haren lagunak. Gorabehera eta oztopo handiak gainditu beharko dituzte bidaian. Bidean izandako ezbehar horietatik guztietatik zerbait ikasiko du Soltaren gazteak: lankidetzeta da oztopoei aurre egiteko modurik eraginkorrena. Ibilbide luze horretan jasotako eskarmentuek indarra emango diete erresumako gor-tea eraldatzeko.

Jansain

Pablo Zerda

Argitaletxea: Saure.